

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak arrakasta izateko ezinbestekoak ditu baliabide fisikoak eta baliabide ukiezinak, hala nola audifonoen merkatuan eta osasun alorrean ezagutza sakona, kontaktu estuak eta bezeroari arreta berezia eskaintzeko gaitasuna.

Baliabide ukigarriak:

1. Produktuak eta Teknologia:

- Audifonoak eta osagaiak: Kalitatezko audifonoak fabrikatzeko edo saltzeko ekipamendu egokia izango dugu. Horretarako, teknologia aurreratu eta fidagarritasuna ditugu.
- Laborategiak eta probak: Audifonoen pertsonalizazioa eta egokitzapenak egiteko laborategiak, entzumen probak egiteko gailuak eta beste teknologia osagarriak ere ditugu.

2. Inbertsioa eta Finantzaketa:

- Kapitala eta funtsak: Enpresa berriak hasi eta finkatzeko diru-laguntzak, inbertsioak eta finantzaketa errazteko baliabideak.



Baliabide ukiezinak

1. Esperientzia:

- Industria ezagutza: Enpresaren barruan gauden denok industria eta merkatuaren inguruko esperientzia dugu. Ezagutza horrek audifonoen fabrikazioaren eta pertsonalizazioaren inguruko ezagutza barne hartzen du, baita osasunaren eta entzumenaren inguruko esperientzia ere.
- Erabiltzaileen beharrak ulertzea: Audifonoei buruzko esperientzia pertsonalizatua eskaintzea beharrezkoa da, erabiltzaileek behar dituzten produktuaren onurak nola eman ditzakeen ezagutzeko.



2. Kontaktuak eta sarea:



- Merkatuarekiko harremanak: Salmentak, salmenta-puntuak, osasun-profesionalekin harremanak eta sare sozialen bidezko komunikazioa erabiliko dugu. Gure enpresak harreman estuak ditu medikuekin, entzuteko profesionalak eta bezeroekin ere.

- Distributzaileak eta beste sektoreko profesionalekin lankidetzak: Klinika, ospitale eta auditorioko profesionalekin

harremanak finkatzea garrantzitsua da.

3. Abileziak eta trebetasunak:

- Innovazio eta produktu garapena: Diseinu eta ingeniartzako abileziak, produktu berritzaileak eta egokituak garatzen lagunduko digu.
- Kudeaketa eta Marketing-a: Marketing digitala, estrategiak garatzea eta bezeroarekiko harremanak kudeatzea.

Baliabide guzti hauek hainbat estrategia eta urratsen bidez eskuratuko ditugu:

- **Langileak:** Langileak kontratau beharko ditugu, hauek ikasketa jakin batzuk eduki beharko dituzte.
- **Merkataritza eta harremanak:** Sare komertzialak eta distribuzio kanalen garapena, frietan eta azoketan parte hartzea, azkenik, marketin estrategiak eta promozioa. Banatzaileak eta distribuzio kanalen sorkuntza, SEUR enpresarekin harremana edukiko dugu gure produktuak etxera 1-2 egunetan iritsi beharko dira eta.
- **Finantziak:** Nahiz eta finantziak guk aurreztutako diruarekin egin bankuarekin harremana "estu" edukiko dugu.
- **Teknologia:** Softwareak erosi beharko ditugu, baita, berrikuntza eta kolaborazioak egin denbora batetik behin. Ikerketa eta garapenean joango zaigu diru gehiena, gure produktuak onenak edo bezeroentzat kalitate onenekoak izatean nahi dugulako.